

Data: Irailak 26, larunbata

9:30 – 10:30 Goierriko dantzak historian eta egutegian

10:30 – 13.30 Goierriko dantza sorta bat

Lekua: Arteleku (Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)

Ikastaroaren prezioa: 15€

Goierriko dantzak

Mikel Sarriegi

Goierriko zenbait dantza

Gipuzkoako dantza tradizioa anitza da eta, ondorioz, herri eta auzo bakoitzean besteengandik bereizten dituen ezaugarri bereziekin ospatzen dira jai eta tradizioak. Goierri, eta bereziki Goierri behealdean, aurkitu dezakegun dantza-ondarea aztertu eta ezagutzera emango dugu: bai gaur egun eskualdeko tradizioan bizirik dirauten dantzak (ezpata-dantzak, soka-dantzak...), bai orain gutxi-asko galdu ala desagertu direnak eta berreskuratze bidean dauzkagunak (inauteria, dantza-jolasak, erromeria...).

Abiapuntua, aurretik eskainitako saio teoriko batek osatuko du: Goierriko dantzen inguruko datu historikoen eta dokumentazioaren laburpena; eta gaur egun egiten diren dantza tradizionalak eta egutegia. Ondoren, dantza sorta bat azaldu eta erakutsiko dugu, era praktikoan. Besteak beste: dantza-maisuen taula goierritarra, Loinazko ezpata-dantza eta banderaren agurra, Ordiziako ezpata-dantza eta ezpata zubiak, Goierriko soka-dantzen inguruko xehetasunak eta Sarian-zunzun sorgin-dantza.



Mikel Sarriegi Etxezarreta (Beasain, 1965)

Beasainen bertan herriko tradiziozko dantza-sokan 1972an hasi zuen bere dantzari ibilbidea; 1974an Salako Adiskideak dantza taldean sartu zen; eta 1979an, Aurtzaka dantza taldea sortu zenetik, bertako partaidea da gaur egun arte. Raimundo Gamayo, Martin Iraola eta Jesus Mari Garate dantza-maisuekin ikasia. 1983-1989 bitartean, Madrilera Euskal-Etxeko dantza taldean dantza-maisu izan zen, eta 1990etik hona, Beasaingo Aurtzaka dantza taldeko dantza-maisu eta zuzendaria da. Beste sari askoren artean, zazpi aldiz Euskadiko Gipuzkoar Aurreku Txapeladuna (1984-1991 bitartean).

Aurtzaka dantza taldearekin Euskal Herriko eta Nazioarteko hainbat jaialdi eta ekitalditan aritua. Noizbehinkako partaidetzak izan ditu Donostiako Argia, Ordiziako Jakintza eta Beasaingo Ostadar dantza taldeekin. Eibarko Arrateko Amaren Dantzarien Kofradiako Ohorezko kidea da, eta Igartzako

dantzarien Kofradiako bultzatzailea. Aurrekulari gisa, parte hartua da, besteak beste: "Lyongo Dantzaren 5. Biurtekoan" (1992); Cubako "La Habanako 11. Nazioarteko Ballet Jaialdian" (1988, J.A. Urbeltz-en eskutik); Italiako "Reggio Emiliako Espainiar Dantzaren Galan" (1988).

Zuzendari eta Koreografia lanetan, beste hainbat neurri txikiko sorkuntzez aparte, "Dantza Berriak, Doinu Berriei Jarriak" (1996) eta "Goierriko" (2004) dantzen ikuskizunen egilea da. Joan den hamarkadan zehar, Goierriko Agintarien soka-dantzak berreskuratze lanetan aritu zen Ikerfolk elkarte eta eskualdeko taldeekin elkarlanean. Azken hamarkada honen hasieran Goierri Behealdeko dantzen azterketa hasi zuen, eta hauen zabalkunderako lanetan dabil egun, dela argitalpenetan (*Dantza Beasainen. Aurtzakak 25 urte* liburuaren koordinatzaile, eta idazle lan-taldean, 2004), dela hitzaldietan ("Soka-dantzak Zerainen", 2008), nola ikastaroetan (Argentinako hainbat Euskal-Etxe, 2006) edota Goierriko dantzen ikuskizunarekin berarekin (2004-2008).

Betebeharrak

Gutxienez adina: 16 urte.
Dantzari eskarmentua izatea.
Leku mugatua. Antolatzailearen esku geratzen da onarpen eskubidea. Dantza irakasleek izango dute lehentasuna.

Izen-ematea

Email: Bidali mezu bat ikasi@dantzan.com helbidera honako datu hauekin:

- Izen-abizenak
- Jaioturtea
- Tfnoa.
- Emaila
- Herria
- Posta-kodea
- Zure dantzari jarduera zein den adierazi
- Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena

Postaz: Izen emateko txartela behar bezala bete, eta **Dantzan Ikasira** bidali (**Dantzan Ikasi. 513 Posta Kutxatila. 20600 Eibar**)

Izen-emate txartela

Izen-emateko epea

Baztango mutil-dantzak eta Jota eta Porrúa ikastaroetarako: **maiatzaren 1a baino lehenago.**

Goierriko zenbait dantza ikastarorako: **Irailaren 12a baino lehenago.**

Ordainketa:


Behin ikastaldian onartua izan zarela ziurtatzerakoan, matrikularen zenbatekoa **Kutxako 2101 0381 07 0001329473** zenbakidun kontu korrantean diru-sarrera egin eta ziurtagiria ikastaro egunean eraman.

Dantzan Ikasi
ikasi@dantzan.com
Tfno. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
2600 Eibar

Kultura sustapen eta hedapeneko zuzendaritza
Koldo Mitxelena kulturunea
www.gipuzkoakultura.net
Tfno: 943 112891
Urdaneta, 9 · 20006 Donostia-San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



Dantzan Ikasi

apirila 1 2009

- ☉ Ikastaroak
- ☉ Mintegiak
- ☉ Tailer teorikoak eta praktikoak
- ☉ Cursos
- ☉ Seminarios
- ☉ Talleres teóricos y prácticos

Izen-abizenak:	Jaioturtea:
Tfnoa:	Emaila:
Herria:	Posta-kodea:
Zure dantzari jarduera zein den adierazi:	
Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi:	
Ikastaroak: Markatu X batekin dagokion laukioxan.	

txartela

- Baztango mutil-dantzak
- Jota eta Porrúa
- Goierriko zenbait dantza

☉ **Dantzan Ikasi**
ikasi@dantzan.com
Tfno. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
2600 Eibar

Dantzan Ikasi



dantza tradizionalaren irakaskuntzan laguntzeko asmoz sortu da **Dantzan Ikasi** egitasmoa. Dantza tradizionala irakasgai duten irakasleei eta ikasten jarraitu nahi duten dantzarietara, beren formazioan sakontzen jarraitu ahal izateko aukera eskaintzea da helburua. Etengabeko irakaskuntza alor guztietan indarrean dago gaur egun eta dantza tradizionalaren alorrean ere bide horretan urrats batzuk eman nahi dira egitarau honen bidez. Dantza tradizionalaren sektorearen osasunaren inguruko azterketak egin direnean formazioa izan da dantza alorreko eragileek azpimarratu duten hutsuneetako bat. Kulturaren Euskal Planean maiz agertu da dantza tradizionalaren formazioerako dauden aukera urriekiko kezka. Hori kontuan hartuta jarri du abian **Dantzan Ikasi** egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ikastaro, mintegi eta taller teoriko zein praktikoen bidez, dantza irakasleen eta dantzarien formazioa osatzeko aukera eskaini nahi da ekimen honen bidez.

Ikastaro eskaintzarekin hasi aurretik, Gipuzkoan dantza tradizionalaren alorrean irakasten diharduten dantzari eta irakasleen berri jasotzeari ekin dio **Dantzan Ikasi**ki. Ikastaroak jasotzeko interesa izan dezaketen irakasle eta dantzariekin kontaktuan jartzeko aukera eman du horrek, eta batez ere, egitasmo honetan interesa izan dezaketen irakasle eta dantzarien berri izan da modu horretan: zein prestakuntza duten, noiz eta norekin ikasi duten, zein baldintzetan ari diren dantzaren irakaskuntzan, eta zein hutsune eta behar antzematen diren dantzarien prestakuntzan, besteak beste. Ikastaroen antolaketaarako eta dantzari eta dantza irakasleen beharrei ahalik eta zorrotzen erantzuteko informazioa biltzea izan da inkesta honen helburua. Inkestan parte hartu duten guztiei helaraziko zaizkie inkesten emaitzak, eta interesa duen edonoren eskura jarriko dira sarean.

Antolatuko diren ikastaroak eta mintegiak norabide jakin eta egituratu batean bideratu ahal izateko dantza tradizionalaren curriculum bat osatzeko urratsak emango ditu **Dantzan Ikasi** egitarauak. Dantza tradizionalaren formazioan lanean eskarmentua duten adituen eta elkarte esanguratsuen proposamen eta irizpideak jasoko dira lehenengo, eta inplikaturako agenteen partehartzearekin, adostasunean oinarritutako lan-dokumentu bat prestatzeko urratsak emango dira.

Dantzan Ikasi Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da. **Dantzan.com** elkartearen arduratzen da egitasmoaren kudeaketa teknikoaz. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra eta Ikerfolk elkarteek gainbegiratzen dute proiektuaren ibilbidea **Dantzan** Ikasiren Jarraipen Batzordetik.

1 Dantzan Ikasi



Dantzan Ikasi

Una iniciativa para impulsar la formación en danza tradicional

Dantzan Ikasi es una iniciativa que nace para impulsar el ámbito de la formación en danza tradicional. Su objetivo es ofrecer la posibilidad de seguir aprendiendo y profundizar en su formación a los profesores que imparten danza tradicional y a los dantzaris que desean ampliar sus conocimientos en la materia. En un momento en el que la formación continua es una actitud indispensable en todos los ámbitos de la sociedad, este programa pretende que la danza tradicional cuente también con esa posibilidad formativa.

Los diagnósticos sobre la salud del sector de la danza tradicional vienen apuntado hacia la formación como una de las áreas más débiles y necesitadas de apoyo. El Plan Vasco de la Cultura ha reflejado también esa preocupación del sector sobre las pocas posibilidades que existen para seguir formándose en danza tradicional. En vista de ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha promovido la puesta en marcha de la iniciativa **Dantzan Ikasi** con el objetivo de ofrecer una posibilidad de seguir formándose en danza tradicional a profesores de danza y dantzaris mediante una oferta de cursos, seminarios y talleres teóricos y prácticos.

Previamente a la puesta en marcha de una primera oferta de cursos, **Dantzan Ikasi** ha abordado la prospección del sector, contactando para ello con los profesores y dantzaris que imparten clases de danza tradicional en Gipuzkoa. A través de una encuesta se está recogiendo información sobre las necesidades concretas y las inquietudes que tienen los profesores de danza tradicional. Las conclusiones del estudio permitirán diseñar los cursos en respuesta a las necesidades de los enseñantes. Todos los participantes en la encuesta recibirán las conclusiones de la misma, y se publicarán en la red para que pueda ser consultado por todos los interesados.

Desde **Dantzan Ikasi** se ha comenzado a trabajar en la elaboración de un currículum de danza tradicional. Este currículum permitirá organizar y direccionar los cursos y seminarios con coherencia y encuadrados en un proyecto. En una primera etapa se ha solicitado que realicen sus propuestas a entidades experimentadas y expertos en tareas formativas en danza tradicional. En sucesivas etapas se pretende consensuar un documento en el que se solicitará también la participación de los agentes implicados en la enseñanza de la danza tradicional.

Dantzan Ikasi es una iniciativa promovida por la Diputación Foral de Gipuzkoa. De la gestión técnica del proyecto se encarga la asociación **dantzan.com**. Una comisión de seguimiento en la que participan las asociaciones Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra e Ikerfolk ofrece asesoramiento y vela por el buen desarrollo de la iniciativa.

Data: Maiatzaren 9a, larunbata

9:30 – 11:30 Jotaren parteak eta urratsak

11:30 – 12:30 Jotaren testuingurua eta bilketa lana

12:30 – 13:30 Loturak eta estiloa

Lekua: Arteleku (Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)

Ikastaroaren prezioa: 15€

Jota eta Porrúa

Orain 30 urte inguru, erromerian gainbeheraz ohartuta, Bizkaiko zenbait eskualdetan, eta Arratia eta Zeberion bereziki, jota eta porrúa modu zaharrean egiten zuten dantzariekin ikasteari ekin zioten Andra Mariko dantzari eta musikariek. 1985. urtean, jotolari eta dantza-maisu garrantzitsuekin ikerketa lana abiatu zen. Fasio, Leon, Txilibrin, Bartolo Lasa eta beste hainbatekin bildu zituzten jota zaharren inguruko kontuak. Bilketa lan horri esker galtzear zegoen erromeria dantzakera baten aztarnak jaso eta berpiztu zituen Andra Marik. “Arratiako jotak” izenarekin ezagutzera eman dira, baina ziurrenez, Euskal Herriko hainbat txokotan dantzatuko zirenen antzekoak izango ziren.

Ikastaroan jotaren hiru zatiak bereizi, puntapioa, hara-honakoa eta balseoa, eta zati bakoitzean erabiltzeko egokiak diren zenbait urrats ikasiko dira. Urratsen arteko loturak egiteko zenbait aukera ikusi, eta oin, belau, gerri eta besoan erabileran kontuan izan beharreko gomendioak eta estilo zaharreko irizpideak irakatsiko dira. Kepa Artetxeren azalpenekin, eta jota horiek dantzatzen zituzten dantza-maisuei –Bartolo Lasa edo Silbestre Elezkano “Txilibrin adibidez– egindako bideo grabazioak erakutsiz, jota eta porru zaharren testuingurua ezagutzeko aukera izango da.



Mikel Goitia Garai (Bilbo, 1969)

Itsasalde Dantza Taldean hasi zen dantzan eta 1993. urtetik aurrera Galdakaoko Andra Mari Dantza Tadeako dantzaria da. Urteen eskarmentuarekin eta folklore alorrean egindako ikerlanek babestua azken urteotan Andra Mariko dantza irakasle izendatua izan da. Horretarako dantza maisu aparta izan du talde barruan, Kepa Artetxe berau hain zuzen ere.

Andra Mari Eusko Dantzari Taldea (Galdakao)

Andra Mari Dantza taldea 1955. urtean sortu zen. Euskal Herriko ohitura eta folklorea, oro har kultura tradizionala eta herri jakintza plazaratzen duen taldea da. Andra Marik kontu handiarekin burutzen ditu bere dantza, musika eta errito ikerketa guztiak; forma tradizionalak mantenduz, estiloa landuz, koreografia zainduz, eta batez ere, dantzaren izaera “ulertzen” saiatuz. Horretarako hainbat izan dira bost hamarkada hauetan egindako ikerketa lanak. Hau dela eta, lan egiteko modu honengatik, Andra Mari Dantza Taldea, Euskal Herriko erreferentziako talde bat bihurtu da, askoren eredu, alegia. Hastapenetatik Andra Mari Dantza Taldearentzat garrantzitsua izan da dantzen iturriak ezagutzera, jasotako datuen interpretazioa egitea eta tokian tokiko janzkerari erreparatzea. Ibilbide horretan eragin berezia izan dute, Txelu Etxebarriak 60. hamarkadan argitaratutako “Bizkaiko dantzak” liburuan isladatutako lan egiteko moduak eta Juan Antonio Urbeltzek 70. hamarkadan ezarritako lan ildoak. Hainbat dantzaren analisis, egituraketa eta ikasketan Andra Mari taldeak zuzeneko laguntza jaso izan du urteetan Txelu Etxebarria, Juan Antonio Urbeltz eta J.M. Barandiaranen ekarpenen eskutik.

Jota eta Porrúa

Kepa Artetxe Mikel Goitia Andra Mari dantzari taldea

Kepa Artetxe Atutxa

(Galdakao, 1939)

Andra Mari Dantza Taldearen sortzaileetako bat da eta gaur egun ere oraindik ere taldekide eta dantza-maisu da bertan. “Ballets Olaeta” taldearean partaide ere izan zen gazte garaian. Dantzari eta musiko garrantzitsuez inguratua formatu du bere burua, Zuberoatik hasi; Jean Pierre Rekalt, Jean Mixel Bedaxagar... Nafarroatik igaro; Frantzisko Beruete... eta Bizkaian bukatuz; Fasio, Leon, Txilibrin, Bartolo Lasa, Alejandro Aldekoa, Joakin Goti... eta beste hainbat.



Data: Maiatzak 23, larunbata

9:30 – 10:30 Introducción a la mutil-dantza – Mikel Aranburu Urtasun

10:30 – 13.30 Baztango mutil-dantzak – Xabier Larralde eta Patxi Larralde

Data: Maiatzak 30, larunbata

9:30 – 13.30 Baztango mutil-dantzak – Xabier Larralde eta Patxi Larralde

Lekua: Arteleku (Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)

Ikastaroaren prezioa: 25€

Baztango mutil-dantzak

Borobil irekian eta ordulariaren aurkako norabidean dantzatzen dira Baztango mutil-dantzak. Iparraldeko jauzi eta Bearneko sauts-ekin loturak antzematen zaizkie, baina ezaugarri propio eta bereziak dituzte baztangoek. Ertizke, hiru urrats, ezker batekin, aitzina pasa, gibelerat pasa eta beste zenbait urrats ikasiko dira ikastaroan, eta ondoren horiek lotzen ikasiko da. Urratsak eta horiek elkarlotzen ikasita, mutil-dantzak dantzatzen ikasteko oinarriak barneratzea da ikastaroaren helburua.



Xabier Larralde (Arizkun, 1927)

Patxi Larralde (Arizkun, 1976)

Xabier Larralde hamalau urterekin hasi zen txistua jotzen eta Antonio Elizalde Baztango txuntxunero ezaguna izan zuen maisu. Berarekin ikasi zituen Baztango mutil-dantzak. Amaiur-en jardun zuen mutil-dantzak jotzen Felix Iriarte eta Ixidro Jaurena atabalariek lagunduta. Elizondoko herriko txistularia izana da bost urtez. 1971n Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte txistulari zirela Elizondo eta Arizkongo dantzariak biltzen zituen mutil-dantzari taldean dantzari izan zen. 1974an soka-dantza ikasi zuen Josefa Garbalena arizkundarrearekin eta taldeari erakutsita berpiztu zuten Baztango dantza hori.

Patxi Larralde bere aita Xabier Larralderekin hasi zen dantzan eta txistua jotzen. Baztango dantza guztiak ikasi ditu etxean, bai dantza egiten eta bai txistuarekin jotzen ere. Baztango Elkartasuna dantza taldearen gidaritzaz arduratu dira aita-semeak urte askoan, eta Baztango usadio eta dantzak mantendu eta galduta zeudenak berreskuratzen lan handia egin dute azken urteotan. Sagar-dantzak, Eskalapoin-dantza, maiatzeko erreginak, e.a.



Baztango mutil-dantzak

Patxi Larralde, Xabier Larralde eta Mikel Aranburu



Mikel Aranburu Urtasun

(Iruñea, 1955)

Cursó estudios de txistu en el Conservatorio Pablo Sarasate y desde 1975 es miembro de la Banda Municipal de Txistularis de Pamplona. Fue fundador del grupo Ortzadar e impulsor de sus «Jornadas de Folclore». A su actividad txistulari y dantzari se añade una dilatada experiencia en la investigación y divulgación del folclore vasco a través de cursos, conferencias, congresos y medios de comunicación con medio centenar de trabajos publicados en revistas especializadas y algunas monografías entre las que cabe destacar *Txuntxuneros de Iruña* (Pamplona, 1993) y *Danzas y bailes de Navarra* (Pamplona, 2000).

Ha sido director de los *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, vocal del Consejo de Cultura de Navarra, Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza y Presidente de la Asociación de Txistularis de Euskal Herria.

1 Dantzan Ikasi